

Bake epaitegiak... gori-gorian

(Magistrates' Courts... a burning issue)

ORDEÑANA GEZURAGA, Ixusko

Euskal Herriko Unibertsitatea
Zuzenbide Fakultatea
Zuzenbide Publikoa Saila
Manuel Lardizabal, 2
20018 Donostia

BIBLID [1137-1951 (2009), 18; 93-95]

Sarrera eguna: 2008.10.10
Onarpen eguna: 2008.12.11

Bake epaitegiak... gori gorian izeneko kronikak *Euskonews & Media*, Eusko Ikaskuntzaren aldizkari elektronikoaren, 454. zenbakiaren edukiaren nondik norakoak azaltzen ditu. Euskal Herriko Unibertsitateko 7 irakaslek gure ordenamendu juridikoan justiziaren oinarria egituratzen duten bake epaitegien antolaketa, lana eta funtzioak lantzen dituzte. Ikuspuntu teorikoa eta praktikoa uztartzen dira, legediaren azterketarekin batera, bake epaileei beraiei hitza emanez.

Giltza-Hitzak: Bake epaitegia. Bake epailea. Estatutu juridikoa. Antolaketa. Funtzioak. Praktika. Frantzia. Portugal.

Za crónica denominada "Bake epaitegiak? Gori gorian?" (Juzgados de paz al rojo vivo) explica los pormenores del contenido del número 454 de *Euskonews & Media*, boletín electrónico de la Sociedad de Estudios Vascos. Siete profesores de la Universidad del País Vasco analizan la organización, el trabajo y las funciones de los juzgados de paz, que constituyen la base de la justicia en nuestro ordenamiento jurídico. Se aúnan puntos de vista teóricos y prácticos, junto con el análisis de la legislación y dan la palabra a los mismos jueces de paz.

Palabras Clave: Juzgado de paz. Juez de paz. Estatuto jurídico. Organización. Funciones. Práctica. Francia. Portugal.

Za chronique *Bake epaitegiak? Gori gorian?* (Échauffement dans les tribunaux de paix) explique les détails du contenu du numéro 454 de *Euskonews & Media*, le bulletin électronique de la Société d'Études Basques. Sept professeurs de l'Université du Pays basque analysent l'organisation, le travail et le rôle des tribunaux de paix qui représentent la base de la justice dans notre système juridique. Ils rassemblent des points de vue théoriques et pratiques, ils analysent la législation et ils donnent la parole aux juges de paix.

Mots Clé : Tribunaux de paix. Juges de paix. Régime juridique. Organisation Rôles. Pratique. France. Portugal.



Euskonews & Media-k, Eusko Ikaskuntzaren aldizkari elektronikoak, bere 454. alea gai juridiko bati eskaini dio; bake-epaitegiei hain zuzen ere. Lerro hauek idazten dituenak zenbaki hori osatzen duten 7 artikulua eta elkarriketa nagusia *Eleria* honen irakurle guztiei gomendatzen die. Izan ere, guztien artean osatzen duten gorputza, taiuzkoa, zorrozetasun juridikokoa eta irakurterraza baita. Horregatik guztiagatik merezi du *Euskonews & Media*-ren ale horren nondik norakoak azaltzea. Aurretik, doktrinan gaur egun bake justiziaren eta berau banatzen edo egiten duten bake-epaitegien inguruan ematen ari den eztabaidaren oihartzuna jaso beharrean gaude: espainiar justiziaren antolaketaren lehen maila osatzen duten epaitegi hauen etorkizuna zalantzan dago, autore askok epaitegi hauek ezeztatu egin behar direla mantentzen baitute. Beraien iritzia oinarritzeko hainbat argudio ematen dituzte: lan zama eskasa dutela, ebatzen dituzten gatazkak huskeria direla, bake-epaileen heziketak -ezaguna denez, ez dute zuzenbidean lizentziatuak izan beharrik, nahiz eta praktikan, bake epaile asko zuzenbidean lizentziatua izan...- ez duela kasuan kasuko justizia bermatzen, udalek aukeratzen dituzten heinean beste edozein epaile baino politizatuago daudela,... Jurisdikzio zuzenbidearen teorialari bikainena den MONTERO AROCAk aipatutakoak eta bi esan ditu bake-epaitegien kontra. Zentzuzkoa denez, bake-epaitegien ezeztatzeak jurisdikzio-organo guztien antolaketan ondorioak izan beharko lituzke (gaur egun bake epaileen eskumenak direnak lehen auzialdiko epaitegiei egotzi, beste jurisdikzio-organo batzuk sortu,...). Baina ondorio hauek alde batera utzita - hausnarketa sakonagoa eskatzen baitute-, jar dezagun arreta bake-epaitegietan eta haiek osatzen dituzten bake-epaileetan. Gogoeta honek lagun dezake, beharbada, aipatutako eztabaida aberasten eta gaiaren inguruko gure ustea indartzen.

Aipatutako *Euskonews & Media*-ren alean, bake-epaileen estatutu juridikoa jorratzen da aitzin. Ixusko ORDEÑANAK herritar bat bake-epaile nola bihurtu daitekeen, eta behin karguan, aitortzen zaizkion eskubide eta betebeharrak laburki azaltzen ditu. Horiek guztiak jorrazteko lehen pauso gisa, historian atzera begirada bat ematen du, "den guztia izandakotik geratzen dena" dela onartuz. Nabarmentzeko modukoa da 1855-ko errege dekretuz sortutako organoak direla hauek, eta hainbat aldaketarekin urtetan mantendu direla orain arte; gaur egun, jakina denez, Botere Judizialaren Lege Organikoak lehen auzialdiko eta instrukzioko epaitegirik ez duten udalerrri guztietarako bake-epaitegi bat aurrikusten duelarik. Lege honi, eta batez ere, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak emandako 1995/3 ekainaren 7ko bake epaileen erregelamenduari erreparatu behar diogu bake-epaile lanak betetzen dituztenen eskubideak eta

betebeharrak ezagutzeko. Honekin batera azaltzen du autoreak herritar ororentzat zabalik dagoen bake-epaile kargura heltzeko bidea, eta horren egikaritzan herritarrek dituzten eskubide eta betebeharrak. Egilearen esanetan, azken hauek, oro har, epaile arruntek dituztenen berdinak dira, bake-epaileen bateraezintasun eta debekuak malguagoak badira ere.

Bake-epaileak ezagututa, eta haien funtzioetan sartu aurretik, bigarren artikuluan Jose Luis RUIZ OSTAIKOETXEAK bake-epaitegietan hain garrantzitsu diren idazkarien antolaketa eta lana jorratzen du. Autoreak indar berezia jartzen du gainerako epaitegietan aritzen diren eta bake-epaitegietan diharduten idazkarien arteko desberdintasunetan. Era berean, Eusko Jaurlaritzak emandako dekretu bat aipatuz, 7.000 biztanle edo gehiagoko herrietan idazkari lanak Justizia Administrazioako ofizial batek egingo dituela eta gutxiagokoetan "idazkari egoki" bat arituko dela azaltzen du, azken honen ezaugarri nagusiak azpimarratuz. Justiziaren funtzionamendua barne-barnetik ezagutzen duen artikulua honen autoreak (fiskal lanetan dihardu) hainbat herri txikitako bake-epaitegien koordinazioa galdatzen duen idazkaritzen elkarrekin ere aztertzen ditu, idazkari judizialak bake-epaitegien burutzen dituen funtzioak banaka aztertu aurretik.

Hirugarren artikuluan, eta jada bake-epaitegien funtzioetan sartuz, Iñaki ESPARZA LEIBAR, Euskal Herriko Unibertsitateko jurisdikzio zuzenbideko katedradunak, era arras sistematikoan arlo zibilean bake-epaitegiek betetzen dituzten funtzioak azaltzen ditu. Bere azalpena haien hiru zeregin nagusietan oinarritzen du: ahozko epaiketa, prebentziozko adiskidetzeta eta helegiteen izapidetza. Ahozko epaiketaren nondik norakoak argi eta garbi aurkezten ditu: demanda tartekatatu ondoren - autoreak bereziki nabarmentzen du bake-epaileen aurrean ahozko epaiketa demanda laburtuaren bitartez hasteko aukera-, berau onartua izanez gero bistarako deia egingen da. Bista ahoz ospatuko da, izan ere autoreak dioenez, "ahozkotasun printzipioa da ahozko epaiketan nagusi eta oinarri", soilik demanda eta azken ebazpena ematen direlarik idatzita. Prebentziozko adiskidetzeta dela eta, autoreak argi dauka "bere helburua irtenbide baketsu eta bidezko bat lortzea" dela. Haren araudia, izaera eta eskuduntza, eta prozedura eta adostutakoa helegiteko aukera argitzen ditu. Azkenik, autoreak bake-epaitegiek helegiteen inguruan izan dezaketen jarduera jorratzen du. Beraien aurrean burututako prozesuko sententzia ez den edozein erabakiren kontra birjartze helegitea tartekatuz gero, beraiek erabakiko dute. Gainera, bake-epaileek emandako sententzien kontra tartekatutako apelazio helegiteen prestaketan parte hartzen dute.

Funtzio zibilen barruan argi eta garbi mintzo da Katixa ETXEBARRIA ESTANKONA bake-epaileek erregistro zibilaren inguruan dituzten ardurei buruz. Egileak lehenengo lerroetan ohararazten du irakurlea gaia ulertzeko ezinbestekoa den datu batekin: bake-epaileek erregistro funtzioak dituzte, beti ere lehen auzialdiko epaitegien menpe egonik. “Lehen auzialdiko epaileak dira udaletako erregistro zibilaren arduradunak, baina ordezkartuz, eta berauen ikuskatze eta zuzendaritzaren menpe bake-epaitegiek beraien udal eremuan beteko dute erregistro funtzioa” dio zehaztasunez. Erregistro zibileko bake-epaileen funtzioak aztertu ondoren (jaiotza inskripzioak, heriotza inskripzioak, erlijio-ekzkontzen inskripzioak, ekzkontza zibilaren inskripzioak eta jaiotza, ekzkontza eta heriotza ziurtagiriak), erregistroaren atalak eta liburuak jorratzen ditu. Bukatzeko, eta teknologia berrien eskutik, bake-epaitegien informatizazioa jorratzen du. Egilearen esanetan “eskuz idatzitako sistema aspaldi eraginkorra izan bazen ere, argi dago ez datorrela bat gaur egungo premiekin”, egun “informatika, justiziaren, eta aldi berean erregistro zibilaren eraginkortasuna lortzeko oinarritzeko baliabide” izanik.

Arlotik arlora salto eginez eta zibiletik penalera igaroz, Alberto SAIZ GARITAONANDIAK bake-epaitegiek zigor esparruan dituzten eskumenak azaltzen ditu labur-labur. Horretarako, Prozedura Kriminaleko 14. artikulutik abiatzen da. Honekin bat, autoreak bake-epaileek soilik falta bakan batzuk -inoiz ez delituak- ezagutzen dituztela azaltzen du. Gainera falta horiek Prozedura Kriminaleko Legearen VI. Liburuan aurrikusitako falta-epaiketarako prozedurari jarraituz izapidetuko direla nabarmentzen du. Jarraian, Zigor Kodeari erreparatuz, bake-epaitegiek ezagutzen dituzten faltak banaka aztertzen ditu.

Benetan interesgarria da Patxi ETXEBERRIA GURIDIK, Euskal Herriko Unibertsitateko jurisdikzio zuzenbideko irakasleak aurkezten duen artikulua. Aurreko autore guztiek esandakoari jarraituz, Portugalen eta Frantzian, hau da, Espainiarekin mugakide diren bi estatuetan, bake-epaitegiak eta bake-epaileen

lana azaltzen ditu. Bere esanetan, “portugaldar bake justiziaren ereduak alde nabarmenak ditu espainiar ereduarekin konparatzen badugu”. Arras ongi azaltzen duenez, estatu horretan bake-epaitegi bakar batek udalerrri bat baino gehiago zerbitzatu ditzake, eta alderantziz, udalerrri bakoitzean bake-epaitegi bat baino gehiago egon daiteke. Baina, badira beste desberdintasun batzuk ere. Nagusiena, bake-epaileen estatutuan dakusagu: Portugaleko bake-epaileek zuzenbidean lizentziatuak izan behar dute eta ezin dezakete beste jarduera publiko edo pribaturik egikaritu. Horrela, autoreak ondorioztatzen duen legez, “bere erregimen juridikoa karrerazko magistratuena bezalakoa da”. Egileak bake-epaileak aukeratzeko bidea eta funtzioak ere jorratzen ditu. Frantzian murgilduz, unibertsitateko irakasle honek estatu horretako hurbiltasun justiziaren eredia azaltzen du. Hango epaileak nola aukeratu diren, beraien lana eta beste epaitegiekin duten harremana aztertzen ditu. Bereziki gomendatzen dugu artikulua zati honen irakurketa, Espainian bertan jarraitzeko eredia izan daitekeelako, jakin baitakigu gobernuan dagoen alderdi sozialistak gustuko duela.

Azken artikuluan bi bake-epailek, Zaldibarren eta Elorrioren lan horretan aritzen diren Mertxe URIARTE eta Susana SERRANOK, beraien esperientzia kontatzen dute. Tonu deskribatzaile eta subjektiboarekin bi emakume hauek bake-epaileen eguneroko bizitzan murgiltzen gaituzte. Beraien pozak eta atsekabeak kontatzen dizkigute. Haien lana hobeto ulertzeko lanabes bat eskaintzen digute.

Bake-epaitegiei eskainitako *Euskonews & Media*-ren ale berezi honetan, bake-epaileen ahotsa ere ekartzen digu Euskal Autonomi Erkidegoko “Epaileen artean” bake-epaileen elkartearen lehendakariak, Donato LARRAÑAGA errenteriarrak. Irakurterraza gertatzen den elkarrizketa batean Aitziber URIARTE BELAR irakasleak, kazetari lanak eginez, elkarrean eta bake-epaileen lanaren inguruan hainbat galdera egiten dizkio. Erantzunak adierazgarriak dira: bake-epaileei asko zor die gizarteak, gutxiren truk asko ematen dutelako.